

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. ABUztua 2018

EAEko hoteletako bidaiari sarrerak % 6,7 igo dira 2018ko abuztuan

Uztaila eta abuztua artean % 4,7 gehitu dira sarrerak eta % 5,6 ostatu-gauak

2018ko abuztuan, 354.146 bidaiari sarrera izan dira EAEko hoteletan; 22.167 sarrera gehiago aurreko urteko hilabete beraren aldean, % 6,7ko gehikuntza, Eustatek landutako datuen arabera. Gipuzkoan, bidaiari sarrerak % 9,7 igo dira; Bizkaian, % 6,9; Alaban, aldiz, % 1,1 jaitsi dira.

Bestalde, 2018ko abuztuan, EAEko hoteletan erregistratu diren ostatu-gauak 765.461 izan dira; % 7,3ko gehikuntza aurreko urteko hilabete berean izandakoen aldean, hau da, 52.396 ostatu-gau gehiago. Gipuzkoan, % 9,2 igo dira ostatu-gauak; Bizkaian, % 7,8 eta Araban % 0,8.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaudiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Abuztua

	Gaudiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)				Gelatik Errentagarritasuna	
	2018/08	m/m-12 (%)	2018/08	m/m-12 (%)	2018/08	2017/08	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)	RevPar (eurotan)
							2018/08	p.p.*	2018/08	p.p.*		
EUSKAL AE	765.461	7,3	354.146	6,7	2,16	2,15	80,5	2,8	85,8	2,3	110,1	94,5
Estatukoak	435.989	7,1	185.592	6,7	2,35	2,34	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	329.472	7,7	168.554	6,6	1,95	1,93	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	100.194	0,8	51.584	-1,1	1,94	1,91	73,6	0,9	79,5	2,2	78,1	62,1
Estatukoak	67.600	-0,6	30.987	-0,2	2,18	2,19	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	32.594	3,7	20.597	-2,6	1,58	1,49	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	70.015	1,2	36.061	-0,8	1,94	1,90	73,7	0,1	81,9	2,6	69,2	56,7
BIZKAIA	357.961	7,8	167.458	6,9	2,14	2,12	80,2	3,2	85,2	1,3	91,6	78,1
Estatukoak	204.615	10,3	88.333	8,9	2,32	2,29	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	153.346	4,6	79.125	4,7	1,94	1,94	-	-	-	-	-	-
Bilbao	213.527	5,8	104.864	6,8	2,04	2,06	84,2	3,3	88,7	1,6	101,9	90,4
GIPUZKOA	307.306	9,2	135.104	9,7	2,27	2,29	83,2	2,9	88,8	3,3	142,0	126,0
Estatukoak	163.774	6,6	66.272	7,4	2,47	2,49	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	143.532	12,3	68.832	12,1	2,09	2,08	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	175.720	12,5	75.340	12,2	2,33	2,33	89,2	4,0	94,5	3,1	181,2	171,3

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea
Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta


EAEEn, Estatutik etorritako bidaiarien sarrerak % 6,7 igo dira, aurreko urteko abuztuarekiko, eta atzeritik etorritakoenak % 6,6 igo dira. Arabaren kasuan, Estatuko bidaiarien sarrerak % 0,2ko eboluzio negatiboa izan dute, eta % 2,6 egin dute behera atzerrikoen kasuan. Bizkaian, Estatutik etorriak diren bidaiari sarrerak % 8,9 igo dira, eta atzeritik etorritakoenak % 4,7 igo dira. Gipuzkoan, % 7,4 igo da Estatutik etorritako bidaiarien sarrera, eta % 12,1 atzeritik etorritakoena.

Batez besteko egonaldia 2,16 egunekoa izan da abuztuko azken hilabete honetan; 2017ko abuztuan izandako batez besteko egonaldia baino zertxobait handiagoa (2,15 egun). Araban, 1,94 egunekoa izan da batez besteko egonaldia, luzeagoa 2017an lortutako 1,91 egunen aldean. Bizkaian, abuztuko azken hilabete honetako egonaldia 2,14 egunekoa izan da, luzeagoa joan den urteko abuztuko 2,12 eguneko egonaldiaren aldean. Azkenik, Gipuzkoan, behera egin du abuztu honetako batez besteko egonaldiak (2,27 egun) 2017ko abuztuan lortutakoaren aldean (2,29 egun).

Betetze-mailari dagokionez, plazen arabera, 2,8 puntu portzentual igo da EAE osorako, 2017ko abuztuko % 77,7tik aurtengo abuztuko % 80,5era. Araban, 0,9 puntu portzentual igo da, eta %

73,6koa izan da okupazio-maila aurtengo abuztuan. Bizkaian, 3,2 puntu portzentual igo da, eta % 80,2koa izan da okupazio-maila. Gipuzkoan, 2,9 puntu portzentual igo da okupazio-maila, 2018ko abuztuan % 83,2koa izan baita, plazen arabera.

Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



Gelen arabera, EAE osorako okupazio-maila 2,3 puntu portzentual igo da, eta % 85,8koa da. Araban, 2,2 puntu portzentual igo da, eta % 79,5koa da; Bizkaian, 1,3 puntu portzentual igo da, eta % 85,2koa da; Gipuzkoan, berriz, 3,3 puntu portzentual igo da, gelen arabera % 88,8ko okupazio-maila lortzeraino.

Abuztu honetan, hoteletako okupazio-maila handiena, plazen arabera, Donostiakoa izan da (% 89,2), eta jarraian Gipuzkoako kostaldekoa (% 87,9) eta Bilbokoa (% 84,2).

2018ko abuztuan, astearen eguna kontuan hartuta, asteburutan izaten da okupaziorik handiena EAE osoan; plaza okupatuena % 82,4, gainerako egunetan izandako % 79,7ko okupazioaren aldean.

Azkenik, eta **sektorearen errentagarritasunaren adierazleak** kontuan hartuta, EAEko hoteletako eguneko batez besteko tarifa (ADR) 110,1 eurokoa izan da 2018ko abuztuan, % 4,9 gehiago aurreko urtekoaren aldean. Araban, batez besteko tarifa 78,1 eurokoa izan da, eta % 1,5 igo da; Bizkaian 91,6 eurokoa izan da, eta % 5,2 igo da; Gipuzkoan, berriz, 142,0 eurokoa izan da, % 4,3ko igoerarekin.

EAEn, 2018ko abuztuan, libre zegoen gela bakoitzeko diru-sarrerak (RevPar) hoteletako okupazio-mailaren araberrak izaten direnak, 94,5 eurokoak izan dira; % 7,7 gehiago 2017ko abuztukoaren aldean. Araban, 62,1 eurokoa izan zen RevPar-a, 78,1 eurokoa Bizkaian eta 126,0 eurokoa Gipuzkoan.

Euskadiko hiru hiriburuetakoko festetan gelen arabera izandako okupazio-maila Gasteizko % 88,8 eta Donostiako % 96,2 bitartekoa izan da

Gasteizen 7.466 sarrera eta 14.680 ostatu-gau izan dira Andre Maria Zuriaren jaiegunetan, 2018ko abuztuaren 4tik 9ra bitartean (6 gau); plazen arabera okupazio-maila % 78,4koa izan da, eta gelen arabera, % 88,8koa. 2017aren aldean, jaitsi egin dira sarrerak (% -9,6) eta ostatu-gauak (% -3,1).

Donostian, Aste Nagusiko ospakizunetan, 2018ko abuztuaren 11tik 18ra bitartean (8 gau), 19.257 sarrera eta 47.001 ostatu-gau izan dira; okupazio-maila % 91,8koa izan da plazen arabera, eta % 96,2koa gelen arabera. 2017aren aldean, jaiak abuztuaren 12tik 19ra bitartean (8 gau) ospatu zirenean, gehitu egin ziren bai sarrerak bai ostatu-gauak; % 7,5 lehenak eta % 11,9 bigarrenak.

2018an Bilboko Aste Nagusiko ospakizun egunetan izandako bidaiari sarrerak 29.363 izan dira Bizkaiko hiriburuko hoteletan. Sarrera horiek 2018ko abuztuaren 18tik 26ra bitartean (9 gau) izan dira. Denbora-tarte berean 62.119 ostatu-gau izan dira, % 83,9ko okupazio-mailarekin plazen arabera, eta % 89,1eko okupazio-mailarekin gelen arabera. 2017aren aldean, Aste Nagusiko jaiak abuztuaren 19tik 27ra (9 gau) ospatu zirenean, % 8,0 gehitu dira sarrerak eta % 7,4 ostatu-gauak.

Uztaileko eta abuztuko balantzea: % 4,7 gehitu dira sarrerak eta % 5,6 ostatu-gauak

Uztaila eta abuztua osorik hartuta, bidaiari sarrerak % 4,7 gehitu dira EAEn; 30.419 sarrera gehiago, 2017ko hilabete berdinen aldean. Gipuzkoan, % 6,8 gehitu dira sarrerak joan den urteko denbora-tarte beraren aldean; Bizkaian, % 5,4 gehitu dira sarrerak; Alaban, berriz, sarrerek % 2,4 egin dute behera.

Ostatu-gauak % 5,6 igo dira EAE osorako 2018ko uztailean eta abuztuan, 2017ko uztailaren eta abuztuaren aldean. Gipuzkoan, % 7,5 igo dira; Bizkaian, % 6,0 igo dira; Araban, berriz, % 1,2 jaitsi dira.

2018ko uztailean eta abuztuan plazen arabera lortutako okupazio-maila EAE osorako % 75,4koa izan da; 1,8 puntu portzentualetan gairitu du 2017ko denbora-tarte berean lortutako % 73,6a.

Landetxeetan bidaiari sarrerek % 2,0 egin dute behera eta ostatu-gauak % 6,6 egin dute gora 2018ko abuztuan

2018ko abuztuan, 23.599 bidaiari sarrera erregistratu dira EAEko landetxeetan; % 2,0 gutxiago aurreko urteko hilabete beraren aldean. Lurraldeen arabera, Araban handitu egin da sarreren kopurua (% 20,8), Bizkaian gutxitu egin da (% 5,2) eta Gipuzkoan ere behera egin du (% 6,6). Atzeritik etorritako 5.243 bidaiari sarrerak gehitu egin dira % 12,0, duela urtebete izandakoen aldean, eta guztizko sarreren % 22,2 dira. Beren aldetik, Estatutik etorriak diren bidaiari sarrerek % 5,3 egin dute behera.

EAEko nekazaritza-turismoko establezimenduek eta landetxeek 94.619 ostatu-gau izan dituzte guztira abuztuan, eta % 6,6 egin dute behera joan den urteko hilabete beraren aldean. Lurraldeen arabera, Araban % 27,6 igo dira eta Bizkaian % 10,8 jaitsi dira; Gipuzkoan, berriz, % 0,3 egin dute behera.

Plazen arabera okupazio-maila % 67,7koa izan da; 4,9 puntu portzentual gehiago 2017ko abuztuan lortutako zifrekiko. Arabak 9,8 puntu portzentual gehitu ditu, eta % 47,6koa izan da plazen arabera okupazio-maila. Bizkaian, % 71,1koa da okupazio-maila; 6,3 puntu portzentual gehiago 2017ko abuztuaren aldean, eta Gipuzkoak 2,4 puntu portzentual gehitu ditu, abuztuan izandako % 74,3ko okupazio-mailarekin.

Azkenik, bidaiari bakoitzeko batez besteko egonaldiak gora egin du 2017ko abuztuaren aldean; joan den urteko abuztuko 3,69 egunetatik aurtengo abuztuko 4,01 egunetara.

Uztaileko eta abuztuko balantzea landetxeetan: % 0,4 gehitu dira sarrerak eta % 7,5 ostatu-gauak

Uztaila eta abuztua osorik hartuta, bidaiari sarrerak % 0,4 gehitu dira EAEn; 173 sarrera gehiago, 2017ko bi hilabete horien aldean. Araban, % 5,9 gehitu dira sarrerak joan den urteko denbora-tarte beraren aldean; Bizkaian, % 2,0 gehitu dira sarrerak; Gipuzkoan, berriz, sarrerek % 2,1 egin dute behera.

Ostatu-gauak % 7,5 igo dira EAE osorako 2018ko uztailean eta abuztuan, 2017ko uztailearen eta abuztuaren aldean. Araban % 14,8 igo dira, Bizkaian % 13,3 eta Gipuzkoan, berriz, % 1,2 igo dira.

2018ko uztailean eta abuztuan plazen arabera lortutako okupazio-maila EAE osorako % 58,1ekoa izan da; 3,7 puntu portzentualetan gairiditu du 2017ko denbora-tarte berean lortutako % 54,4a.

2. taula.- Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Abuztua

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2018/08	m/m-12 (%)	2018/08	m/m-12 (%)	2018/08	2017/08	2018/08	p.p.*
EUSKAL AE	94.619	6,6	23.599	-2,0	4,01	3,69	67,7	4,9
Araba/Álava	13.801	27,6	4.430	20,8	3,12	2,95	47,6	9,8
Bizkaia	31.026	10,8	7.486	-5,2	4,14	3,55	71,1	6,3
Gipuzkoa	49.792	-0,3	11.683	-6,6	4,26	4,00	74,3	2,4

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62